Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nati Bilbao Onaindia

Durango, Bizkaia
(1929-2023)



Aurkibidea

Biografia



1929ko otsailaren 25ean jaio zen Larrinagatxu auzoko Erdikoetxean, eta bertan bizi da oraindik. 5 neba-arrebatatik gazteenak dira bera eta bere ahizpa bikia. Bere etxeko taberna eta jatetxea oso ezaguna da inguruan, bere aitona txakolina egiten hasi zenetik. Orozketako eskolara joan zen umetan; eskolan hasi eta 8 egunetara gerra hasi zenez ez ziren eskolara bueltatu 3 urte beranduagora arte; San Frantziskoko eskolara ere joan zen. Kanpezuko (Araba) Antonio Gomez de Segurarekin ezkondu zen.

Zintak

DUR-002

- **Proiektua**: Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-01-04
- **Iraupena**: 95 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Tabernetan txakolina eta sagardoa

- **Erref**: DUR-002/002
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:00:58. **Bukatu**: 00:03:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Betidanik egin izan dute txakolina etxean, bai beltza eta bai zuria. Garizuman saltzen zuten etxeko tabernan, eta etxekoa bukatuz gero gehiago erosten zuten. 1.000 litrotik gora egiten zuten urtero. Orduko tabernako edariak txakolina eta sagardoa ziren. Sagardoa Usurbildik ekartzen zuten.

2. Garizuman dena bekatu omen zen

- **Erref**: DUR-002/003

- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:03:13. **Bukatu**: 00:05:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Orduko garizuman zinerik edo erromeriarik egoten ez zenez, jendea tabernara gehiago joaten zen. Domu Santuetan berriz, Santa Lutziara joaten zen jendea, gaztaina erreak jatera. Ardoa edukitzen zuten tabernan, baina jendeak txakolina edo sagardoa edaten zuen. Jaten ere ematen zuten tabernan.

3. Gero eta bezero gehiago zituzten tabernan

- **Erref**: DUR-002/004
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:05:42. **Bukatu**: 00:07:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Mañaria, Abadiño eta inguruko herri guztietatik etortzen zen jendea txakolina edatera. Tabernarako intxaurrak Arratiatik ekartzen zituzten. Aita bizi zen bitartean mahastiak zaindu zituzten. Gero txakolina erosi egiten zuten. Bilbotik ere jendea etortzen hasi zen.

4. Opor bukaerako meza

- **Erref**: DUR-002/006
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:09:54. **Bukatu**: 00:12:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Gero eta jende gehiago etortzen zen jatetxera, eta opor bukaerako meza ospatzen hasi ziren bertan. Hogeitaka urteetan eman zuten meza hori.

5. Ermita eraiki zuten taberna ondoan

- **Erref**: DUR-002/007
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:12:46. **Bukatu**: 00:15:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Jatetxe ondoan ermita bat eraikitzea erabaki zuten bezero batzuek; erabaki eta jarraian egin zuten, auzolanean egin ere ermita ederra. Ezkontzak ere ospatu ziren ermitan berrian. Kantabriatik ekarritako San Ziprianori eman zioten ermita. Azkenerako erromeria leku bihurtu zen, etxekoak zikinak jaso besterik ez zutela egiten dio.

6. Terraza kendu egin zuten

- **Erref**: DUR-002/008
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:16:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Kanpoko terraza kentzea erabaki zuten. Ganadua kendu eta taberna-jatetxea eraberritzeko obra egin zuten.

7. Etxeko txakolingintza

- **Erref**: DUR-002/012
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:20:46. **Bukatu**: 00:23:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Txakolin zuria mahats zuriarekin, amerikanoa deitzen diotena, egiten da; beltza, berriz, mahats beltzarekin. Txakolina etxean egiten zuten, Durangoko ardo-upeltegi bateko enologoaren laguntasunarekin. Txakoligintzari buruzko azalpenak ematen ditu Natik.

8. Etxeko txakolina, onena

- **Erref**: DUR-002/013
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:23:08. **Bukatu**: 00:26:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Urteko lehen txakolina irekitzean, aitak Natiri eskatzen zion dastatzeko. Gaurko txakolinak oso kimikoak direla dio Natik, ez lehengoen modukoak. Lehenago etxeko txakolina bukatzen zitzaienean, Bakiotik ekartzen zuten tabernarako.

9. Eskolan zegoen bonbardaketa izan zenean

- **Erref**: DUR-002/015
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:26:51. **Bukatu**: 00:29:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Txokolatea eta ogia hartuta joaten zen eskolara, Orozketara, egun guztirako. Eskolan hasi eta zortzi egunera, gerra etorri zen. Eskolatik ikusi zuten bonbardaketa, mahai eta aulkien dardara artean. Bere eskolakide batek infartuaren antzeko zerbait jasan zuen; eta, sustoaren ondorioz, hil egin zen.

10. Gerraosteko maistra gaiztoa

- **Erref**: DUR-002/016
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:29:34. **Bukatu**: 00:32:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Gerrak iraun zuen artean ez zuten eskolarik izan. Hiru urte pasa eta gero berrekin zion eskolara joateari. Maistra berriak umeak jo egiten zituen odola atera arte. Gurasoak kexatu eta 'Baltza' ezizenezko maistra kendu zuten, eibartar bat haren ordez jarriz. Hau oso ona omen zen.

11. Egunero eskolara ezin joan

- **Erref**: DUR-002/018
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:33:05. **Bukatu**: 00:36:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Umeak euskaraz egiten zutenean, 'Baltza' maistrak jo egiten zituen. Hamabost bat neska-mutil elkartzen ziren ikasgelan. Baserriko lanak zirela-eta, ez zen egunero joaten eskolara. San Frantzisko eskolara joan zen urtebetez.

12. Eskolan bazkaltzen zuten

- **Erref**: DUR-002/019
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:36:22. **Bukatu**: 00:39:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Orozketako eskolan bazituzten arbela eta liburuak. Umeak babarrunak etxetik ekartzen zituzten, eskolan prestatzeko. Batzuetan ogi eta txokolate hutsarekin joaten ziren. Maistra abade-etxean bizi zen.

13. Bonbardaketa egunean, ahizpa esnea banatzen

- **Erref**: DUR-002/020
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:39:39. **Bukatu**: 00:42:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Ostegun arratsaldea eta asteburu osoa jai izaten zuten eskolan. Oporrak, berriz, oraingo antzera. Dotrina Durangoko jesuitetan ikasi zuen. Bonbardaketa egunean, Natiren ahizpa esnea banatzen zegoen kalean. Onik irten zen, baina Andra Mariako elizan jende asko hil zen. Bertan lotuta zeuden esnedunen astoak ere hil egin ziren.

14. Bonbardaketa gogorra izan zen

- **Erref**: DUR-002/021
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:42:22. **Bukatu**: 00:45:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Aurreko egunean mehatxuak jasota, aita ganadu guztiarekin Karrantzara joan zen. Bonbardaketa eguneko oroitzapen garratzak ditu: aita eta anaia hil egin zirela esan zieten, kaletarrak etxean babestuta, babeslekuak...

15. Etxeko denak onik irten ziren

- **Erref**: DUR-002/022
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:45:37. **Bukatu**: 00:46:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerrako hiru urteetan, ahizpa zaharrenaren berririk ez zuten izan. Gerra bukatu zenean, etxeko denak onik itzuli ziren etxera.

16. Mañaria eta Izurtzako jaietara oinez

- **Erref**: DUR-002/024
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:48:20. **Bukatu**: 00:50:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Etxeko tabernan garai batean parranda itzelak ospatzen omen ziren; soinua eta gitarra-jotzaileak elkartzen ziren lagunekin txakolina edan eta kantuan egiteko. Nati ez zen etxe ingurutik irten 17 urte izan zituen arte. Gero, oinez mendirik mendi, Mañaria eta Izurtzako jaietara joaten zen. Serafin izeneko soinujole gernikarra eta jazbanak jotzen zuten hango erromerietan.

17. Mañariarrak mutil borrokalariak

- **Erref**: DUR-002/025
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:50:44. **Bukatu**: 00:53:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Dantzan egiten zuten, baina dantza lotua bekatua omen zen. 'Itzikozu jantzan egitten'? esanda eskatzen zieten dantza mutilek neskei. Mañariar mutilek arratiarrekin kristoren borrokak egiten omen zituzten, hauek herriko neskekin dantza egiten bazuten.

18. Senargaia nola ezagutu zuen

- **Erref**: DUR-002/026
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:53:33. **Bukatu**: 00:57:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Senarra izango zena, etxe ondoko landara-haztegi batean ezagutu zuen. Gero arrantza-guarda izan zen. Aitaginarrebarekin igeltserogintzan hasi zen, baina tailer batean bukatu zuen lanean.

19. Lehenengo jaunartzea

- **Erref**: DUR-002/029
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:59:31. **Bukatu**: 01:00:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Natiren parrokia Santa Anakoa zen arren, jesuitetara bidali zuten dotrina ikastera. Bertan egin zuen lehenengo jaunartzea.

20. Senideak tabernara laguntzera

- **Erref**: DUR-002/031
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 01:00:34. **Bukatu**: 01:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Bost neba-arreba izan ziren, eta baserriak lau logela zituen. Astegunetan etxekoek nahikoa izaten ziren taberna eramateko, baina asteburuetan lehengusinak etortzen ziren laguntzera.

21. Lehen sukaldean ohitura ezberdinak

- **Erref**: DUR-002/032
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 01:03:50. **Bukatu**: 01:06:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Lehen txakolina ez zen erabiltzen sukaldean. Orduan ez zegoen ardo zuririk, eta txakolina edaten zen. Ardoak eta txakolinak antzerako prezioa zuten.

22. Txakolina eta sagardoa pitxerretan

- **Erref**: DUR-002/033
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 01:06:07. **Bukatu**: 01:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Durangon bertan egiten ziren kuartilu eta erdiko pitxerretan ateratzen zuten txakolina eta sagardoa. Kanpoan eserita egoten ziren bezeroak. Olaberria dendan kuartilu bat, litro bat edo litro biko portzelanazko pitxerrak saltzen zituzten.

23. Antxoak eta txakolina

- **Erref**: DUR-002/034
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 01:08:10. **Bukatu**: 01:11:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Arrautzaztatutako antxoak ateratzen zituzten txakolinari laguntzeko. Emakumeak gizonekin batera edaten zuten. Zornotzako lehengusinak etortzen ziren larunbatetan tabernan laguntzeko iganderaino. Pozik etortzen ziren baserritik jendartean ibiltzera.

24. Taberna garbitzea

- **Erref**: DUR-002/035
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 01:11:05. **Bukatu**: 01:13:22

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Tabernako zikinak eskobarekin jaso eta soroan erretzen ziren. Amak betiere eukaliptoa erretzen zuen usainagatik. Zurezko zoruak lixiba eta eskuilez garbitzen ziren ondo zuritu arte.

25. Artilezko koltxoiak

- **Erref**: DUR-002/036
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 01:13:22. **Bukatu**: 01:14:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Lehengo koltxoiak artilezkoak izaten ziren.

26. Arropak garbitzea

- **Erref**: DUR-002/038
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 01:15:57. **Bukatu**: 01:17:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropak eskuz garbitzen zituzten. Xaboi-uretan beratu ondoren, errekan astintzen zituzten. Aspaldi jarri zuten sukaldean marmolezko aska bat arropak garbitzeko.

27. Argindarra Mañariatik

- **Erref**: DUR-002/039
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:17:58. **Bukatu**: 01:19:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Argindarra etxean beti ezagutu du. Lehen Mañariatik etortzen zen, baina haizea edo ekaitza zenean indarra kendu egiten zieten.

28. Ama oso elizkoia zen

- **Erref**: DUR-002/040
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 01:19:09. **Bukatu**: 01:22:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Mañariako aguazila makilarekin ibiltzen zela gogoratzen du Natik. Igandero joaten ziren Santa Anako elizara mezara. Konfesatu ia igandero egiten ziren, amak aginduta. Ama oso elizkoia zen. Konortea galdu zuen behin, bero handiarekin oinez elizara joan eta gero.

29. Goizeko sei eta erdietan mezetara

- **Erref**: DUR-002/041
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 01:22:23. **Bukatu**: 01:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Nati eta senarra ume txikiak ohean utzita goizeko sei eta erdietako mezara joaten ziren igandetan, bizikletaz. Etxera bueltan, bakoitzak zakukada bat ogi ekartzen zuen. Jesuita ezagun batzuek esan zieten umeak eta ama zaharra etxean bakarrik utzita mezara ez joatea ez zela bekatu, eta harrezkero ez ziren gehiago mezara joan.

30. Meza, konfesio eta penitentziak

- **Erref**: DUR-002/042
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 01:26:35. **Bukatu**: 01:28:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Jesuitek mezak erdaraz ematen zituzten. Santa Anako parrokoak, ordea, euskaraz. Konfesatzeko emakumeak takila antzeko batean sartzen ziren, baina gizonezkoak libreago konfesatzen ziren.

31. Igandetako janzkera; orrazkerak

- **Erref**: DUR-002/045
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 01:30:22. **Bukatu**: 01:33:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Igandetan arropa ezberdinak erabiltzen zituzten. Txarolezko oinetako beltzak, takoi gabekoak edo espartina zuriak. Jertse zuria eta gonak. Bere etxean makillajerik ez zen erabiltzen. Ile-apaindegira urtean behin-edo joaten ziren.

32. Ile-apaindegia eta bizartegia

- **Erref**: DUR-002/046
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 01:33:22. **Bukatu**: 01:34:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Koinata Pantxiren ile-apaindegia non zegoen azaltzen du. Bizartegia Txantonesa tabernaren ondoan zegoen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com